

ELA, STEILAS eta CCOOek oso larritzat jotzen dugu gaurko birkokapen batzordera ez agertzeko patronalen erabakia

Bertan egon den Hezkuntza Sailak argi adierazi digu sindikatuoi birkokapen akordioa bere osotasunean ulertu behar dela, eta ikastetxe zein patronalek birkokapena betetzen ez badute finantzaketarik ez dutela jasoko

Azaroan, lan gatazka gogor baten ondoren, gehiengo sindikalak eta patronal nagusiak akordio bikain bat sinatu genuen. Akordioan jasotako oinarritzko edukietako asko ikastetxeetan aplikatzen ari dira dagoeneko, besteak beste galdutako erosi ahalmenaren ia erdia berreskuratzea suposatzen duten soldata igoerak edota lan kargak arintzeko ordu osagarriak eta lanaldi murrizketak.

Azaroko akordioa jarraituz, patronalek eta sindikatuok birkokapen akordioa hitzartu eta sinatu genuen Hezkuntza Sailarekin. Honela, matrikulazio jaitsieragatik lanpostua gal dezaketen langileak birkokatzeko irizpideak, baldintzak eta prozedura itxi genituen.

Greba amaierako akordioan erretiro partziala hartzeko eskubidea jasotzen da langile guztientzat. Honekin batera % 100ean eta lan kontratu mugagabearekin errelebitak kontratatzeko betebeharra dakar, zeinak birkokapenerako irizpide objektiboak ezartzearekin batera lanpostua galdu dezaketen langileak birkokatzeko bermea suposatzen duen.

Hezkuntza sailarekin sinatutako akordioak, Sailak erretiro partzialak errazteko eta birkokapena ahalbidetzeko, erretiro hauen kostua bere gain hartuko duela jasotzen du beti ere, patronalek eta hauek ordezkatzeko dituzten ikastetxeek lanpostua galtzen duten sektoreko langileak adostutako erizpide objektiboen bitartez birkokatzeko konpromezua eta betebeharra bere gain hartzen duten bitartean.

Patronalek birkokapenaren inguruan sinatutakoa ez dute bete nahi. Gobernuaren finantzaketa jaso nahi dute erretiro partzialen kostua ordaintzeko, baina lanpostua galtzen duten sektoreko langileak erizpide objektiboen bitartez birkokatzeko konpromezua bete gabe, beren aldebakarreko kontratazio politikari eutsiz. Azken batean, birkokapenaren inguruan adostutakoa ez du bete nahi.

Pasa den astean sindikatuok deitutako mobilizazioetan jakinarazi genuen, akordioak betez birkokapena ahalbidertzeko aldebakarreko pausoak ematen jarraituko genuela. Zentzu horretan, gaurko, lanpostuak esleitzeko zeregina duen birkokapen batzordeko zein birkokapen akordioaren betearazpena bermatzeko lana duen jarraipen batzordeko bileretara deitu genituen sindikatuok Hezkuntza saila eta patronalak.

Gure harridurarako, deialdi honen aurrean, eta beste behin ere birkokapen akordioa ez betetzeko intentzioarekin, patronalak mahai negoziatzailea deitu du sindikatuok birkokapen eta jarraipen batzordea deitutako egun berdinerako eta birkokapenaren inguruko inolako planteamendu aldaketarik edo proposamenik egin gabe.

Patronalek bileretara ez agertzea erabaki duten bitartean, greba amaierako akordioa sinatu genuen sindikatuak eta hezkuntza saila bertaratu gara.

Hezkuntza Sailak jarraipen batzordea formalki osatzeko pausoak emateko konpromezua hartu du eta argi adierazi du gaurkoan birkokapen akordioa bere osotasunean ulertu behar dela, eta birkokapena gauzatzen ez bada erretiro partzialen finantzaketarik ere ez dela egongo.

Sindikatuok, Patronalei greba amaierako akordioan jasotako eduki guztiak, eta bereziki birkokapen prozedura eta helburuari dagozkionak, adostutako terminoetan bere gain hartu, Lan hitzarmenean txertatu eta betetzeko galdegiten diegu. Eta Hezkuntza Sailari birkokapen akordioa betearazteko parte hartze aktiboa izan dezala.

Euskal Herria 2020ko ekainak 23an



ELA, STEILAS y CCOO consideramos muy grave la decisión de las patronales de no acudir a la comisión de recolocación

El Departamento de Educación, que si ha asistido a la reunión, ha dejado claro que el acuerdo de recolocación debe entenderse en su totalidad y que si los centros y las patronales no cumplen con su obligación de recolocar tampoco obtendrán financiación

En noviembre, tras un duro conflicto laboral, la mayoría sindical y la patronal mayoritaria firmamos un magnífico acuerdo del que muchos de los contenidos básicos ya se están aplicando en los centros educativos, como los incrementos salariales que han supuesto recuperar casi la mitad del poder adquisitivo perdido, reducciones de jornada y otras medidas para aliviar el exceso de cargas de trabajo.

Además del acuerdo de noviembre, las patronales y los sindicatos pactamos y firmamos un acuerdo de recolocación con el Departamento de Educación. Así, en estos dos acuerdos cerramos unos criterios concretos, unas condiciones y procedimientos para la recolocación de trabajadores que puedan perder su puesto de trabajo por descenso de matriculación.

En el acuerdo de fin de huelga se recoge el derecho a la jubilación parcial y la contratación de relevistas al 100% de la jornada laboral y con contrato laboral indefinido, que junto con el establecimiento de criterios objetivos de recolocación, supone una garantía de recolocación de los trabajadores que pueden perder su puesto de trabajo por el descenso de la matriculación.

El acuerdo firmado con el Departamento de Educación contempla, entre otras cosas, que el Departamento asumirá el coste de estas jubilaciones para facilitar las jubilaciones parciales y posibilitar su recolocación, siempre que las patronales y los centros que las sustituyan asuman el compromiso y la obligación de recolocar a los trabajadores del sector que pierdan su puesto de trabajo a través de los criterios objetivos acordados.

Las patronales no quieren cumplir con lo acordado en materia de recolocaciones. Su intención no es otra que limitarse a recibir la financiación del Gobierno para sufragar el coste de las jubilaciones parciales, pero sin cumplir el compromiso de recolocar a los trabajadores del sector que pierden su puesto de trabajo mediante criterios objetivos, manteniendo su habitual política unilateral de contratación.

Durante las movilizaciones de la semana pasada anunciamos que, seguiríamos dando pasos unilaterales para que se cumplan los acuerdos y se ponga en marcha la recolocación. Por eso los sindicatos convocamos para hoy tanto al departamento de Educación como a las patronales a las reuniones de la comisión de recolocación que tiene la tarea de adjudicar los puestos como a la

comisión de seguimiento que tiene la labor de garantizar la ejecución del acuerdo de recolocación.

Para nuestro asombro, ante aquella convocatoria, y una vez más con intención de no cumplir el acuerdo de recolocación, la patronal ha decidido convocar una mesa de negociación para el mismo día que los sindicatos convocamos la comisión de recolocación y seguimiento y sin realizar ningún cambio de planteamiento o propuesta en torno a la recolocación.

Mientras las patronales han decidido no acudir a las reuniones, los sindicatos firmantes del acuerdo de fin de huelga y el departamento de educación si hemos acudido.

El Departamento se ha comprometido a dar pasos para la constitución formal de la comisión de seguimiento y ha dejado claro que el acuerdo de recolocación debe entenderse en su totalidad, y que si no hay garantías de recolocación no habrá financiación de las jubilaciones parciales.

Los sindicatos, pedimos a Kristau Eskola y al resto de las patronales que asuman de una vez todos los contenidos recogidos en el acuerdo de fin de huelga en los términos acordados, especialmente los referentes a la recolocación, que los incorporen al convenio y que se cumplan de inmediato. Y al Departamento de Educación que tenga una participación activa en el cumplimiento del acuerdo de recolocación.

Euskal Herria 23 de junio de 2020

